



ERRENTERRIAKO ELIZA

(Zutoidun elizak Gipuzkoan)

JUAN SAN MARTIN

Gipuzkoako elizen artean aipagarrienetako bat, berak dituen berezitasunegatik, Errenterriako parrokia da, aintzinago toki berean XIV. mendean zenaren lekuan eraikia.

Asuntzioko Andra Mariaren izena daroan oraingo hau XVI. mendean eraikia da. Bere tipologiaz euskal gotikoa deritzan horietakoa eta berauen artean zaharretako bat noski. Baditeke hamabosgarren mendearen azkenaldera hasia izatea, bere estiloaren aldetik begiraturik, baina eraikitzearen lehen berriak 1524koak ditugu.

Garai hartan ere izaten ziren grebak, eta lehen berrien artean azaltzen zaigu langileen irabazpen gehiagoren eskariak ontzat ez hartzeagatik lanak uztearena. Baina orduko herriak gogoz bereganatzen zituen elizaren beharrak, zeren hau izaten bai zen bere abaroa, sinesme-

narena ez ezik baita biltzar leku ere. Gainera, gerrateetan bertan aurkitzen zuten gorde lekua eta inoiz bere babesean jartzen ziren izurrite garaietan ospitalak ere. Horregatik ba, elizak txukun zaintzeaz saiatzen ziren. Ikus besterik ez dugu eliza hau eraikitzeko errenteriarrek hartu zuten erabakia, bertako itsasontzietako irabazpenaren erdia elizagintzarako ematea.

Maria Asunción Arrazolak bere lanean ongi dokumentatu digunez, 1542an bizkortu ziren elizagintza lanak aurrera eramateko, Franzisko Marrukizaren zuzendaritzapean, eta hau hil ondorean Domingo Arantzalde eta Joanes Arantzatroki jabetu ziren jarraitzaile.

Félix López del Vallado zenaren ustez, arkitekturaren egituraz oinarriturik, badaitake elizburu aldeko sabai biribilaren gainera beste zaharrago bat izatea, gotikoa,

eusgarrietatik hain zut irtetzen diren uztaiak erakusten dutenez. Hau, behar bada, XV. mendearen azken partean hasia izan daitake. Gainera, elizaren lehen tarteak gotiko egitura daroa; lehenengo bi zutoietara artekoa behinik-pehin. XVI. mendeko bigarren ekinaldian aldakuntzak izan zituen, garaiko moderi loturik eta euskal gotikotzat ezagutzen diren gehienen arabera. Honegatik, hain zuzen, euskal gotikoaren hastapenak ikertu behar direnean oso kontuan hartzekoa da Errederiako eliza.

Areto solairuduna da, hiru solairuz eta hiruren sabaiak altura berdinez. Sabaiok uztai-gurutzatuz ditu, baina gotikoan ohitzen zirenak baino askozaz konplikatagoak. Apeztegitik aldetik aurkitzen diren lehen zutoi edo bordoinak arteraino, elizaren ekialde hortan, oso ongi gordetzen du gotiko estiloa. Ondorekoetan datoz eboluziozko aldakuntzak. Lehen zutoietan konturatzen bagara, erdiko gorputz edo enberrari zortzi zutoi tipiago eransten zaizkiola, bakoitza sabai-uztai banaren eusgarri dela ohartuko gara.

Korua, elizaren atzekaldean, azken bi zutoien artean arku zapalez eraikia da. Aldamenetatik eskilarak ditu. Elizako obren azken partea da.

Azken parte horren eskubi aldean, hego-mendebalera begira dagoen kantoian zutitzen da dorrea. Dorrepetik du Goiko-kalek eliz atarirako pasoa. Jende asko harritzen da hontaz, baina dorre gotikoak asko ziren horrela. Mondragoen, Deban eta Donostiako San Bizentzen ditugu horrelako adibideak.

Eliz ataria ordea Pizkunde garaiko romanista estiloduna da, 1625ean Kristobal Zumarristak egina.

Frantsezak egin zuten triskantzaren ondotik berriztu beharrean aurkitu zen eta 1784an birreraiki zuen Franzisko Azurmendik, Ventura Rodríguez arkitektoaren zuzendaritzapean.

Gaur egungo erretaula nagusia bera ere, jaspe harriz eta estukoz egina, Ventura Rodriguezen proiektorearen arabera eta bertako eskulturak Bergaz-en lanak dira.

Horrez gainera, beste zenbait arte balio berezirik badu Errederiako elizak. Ebangelio aldeko lehen kaperan Birjina Koroatzearen erretaula bat, XV. mendearen bukaeretakoa edo XVI-aren hasieretakoa nonbait eta hirukoitz baten erdiko partea izan behar du. Beranduko gotikoa noski, baina eskultura ederrak dituena, trazeria deritzan apaingarri konplikatuekin. Weisen ustez flamenar jatorrizkoa izan daitake.

Baita ere badu sagrario romanista baten behe partea. Lan bikaina. M. A. Arrazolak dokumentatu ahal izan duenez Ambrosio Bengoetxea alkizarrak egina da. Bengoetxea izan zen Antxietaren ikasleatarik aurreratuen eta beronen lanen artean balio handiakoa da Errederiako egin zuen sagrarioaren zati hau. Erreliebezko lan honetan aurkitzen den parterik txukunena Azken Afariaren errepresentazioa da.

Besteak beste, Errederiako elizan gordetzen diren arte balioetan Imakulada eta San Migel imajinak ere aipagarriak dira. Eskultura barroko hauek Gregorio Fernández-en eskolakoak dira.

